



Uribelaroste

etxebizitza

Aldacrak: Goikolea
Ahozkoa:



43° 11' 6"

2° 35' 35"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Uribelar (**Ikus Uribelar**) baserriaren ostean egindako egurrezko etxea, *Andikoaparizio* (**Ikus Andikoaparizio**) baserriaren lurretan eraikia. Orain arte *Goikolea* moduan ezagutu izan da etxe hau, aurreko jabearen abizenarekin lotuta. Toponimia-ikerketaren ondorioz, lekuaren izena hartzea proposatu da, eta onartu dute; hortik datorkio *Uribelaroste* izena.

Bi pisuz osatuta dago, eta nagusiena goikoa da, bertan kontzentratzen direlako elementurik adierazgarrienak. Behean, fatxada nagusian,

leiho txiki bi bakarrik dauden bitartean, goikoan etxe erdia balkoiak hartzen du eta baoen neurria ere bikoitza da. Gainera, materialetan ere nabari da, behekoa luzituta eta zurituta dago, eta goikoa, aldiz, gutxi landutako egur ilunaz estalita. Solairu bakoitzak berezko sarrera du, eta biak aldamen batean daude. Gora joateko, kanpoaldean dauden eskailerak erabili behar dira, balkoiarekin bat egiten dutenak.

toponimia

*Bizkaian ohikoa da etxe-izenen lehenengo osagaia lehendik zegoen etxe zaharragoa baten izena izatea, kasu honetan bezala. Uribelar etxearen ostean edo atzean eraikitako etxea dugu hau (**Ikus Uribelar**).*